

BATERA PLATAFORMA. Dagoeneko laurogeita lau erakunde eta elkartek izenpetu dute lau aldarrikapenen agiria

Lau eskaera bidegurutzean

Giroa berotzen ari da Ipar Euskal Herrian, otsailaren leheneko manifestaziorako deialdiak ugaritzen ari baitira

Eneko Bidegain | BAIONA

Termometroko merkurioa behera doa, baina azken egun hauetan giroa berotzen ari da, etzi Baionan iraganen den manifestazioari begira. Elurra apal eta ekaitz handiak iragartzen badituzte ere, Ipar Euskal Herriko eragile ugari bere inguruko jendea animatzen du Batera plataformarekin bat egin dezan. Euskal departamendua, euskararen ofizialtasuna, laborantza ganbera eta berezko unibertsitatearen aldarrikapenak elkarretaratuko dira San Leongo bidegurutzean.

Laurogeita lau erakunde eta elkartek izenpetu dute, dagoeneko, Batera plataformaren agiria. Batzuek departamenduaren gaiari ematen diote lehentasuna. Bertze batzuk euskararen gaiak kezkatzen ditu gehienik. Berezko unibertsitatearen aldeko mezuak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira irakasle eta ikasleen baitan. Laborantza ganberaren aldeko borroka gori-gori dago. Baina guztiek onartu dute lau aldarrikapenak elka-



EGUNKARIA
1999KO URRIA. 1999ko urriaren 9an, euskal departamenduaren aldeko manifestazio jendetsua egin zuten Baionan. Atxikimendu asko jaso zituen, eta alderdietako ordezkariak eta hautetsi zenbait ere joan ziren.

rri jostea. 1999ko urriaren 9ko manifestaziotik honako jauzia da hori: mobilizazioa ez du barrik euskal departamenduaren gaiak sortuko.

Lau tokitan finkatuak dira hitzorduak, 15:00etan. Suprefeturen aitzinetik, euskal departamenduaren aldeko adarra abiatuko da. Euskaldunen plazan la-

borantza ganberaren aldekoak elkartuko dira. Unibertsitatearen sustatzaileek San Andresen dute topalekua. Euskararen ofizialtasuna galdeginen dutenak

Laugan bilduko dira. Dei egiten duen erakunde bakoitza bere sektoreko aldarrikapenaren arabera gunetik abiatuko da.

Udalbiltzak ordezkartza bat igorriko du

Batera-ren agiriaren izenpetzaileez aparte, egunez egun deialdiak iristen ari dira. Udalbiltzaren Batzorde Eragilearen ordezkartza batek eta zenbait auzapezek manifestazioan parte hartuko dute. Suprefeturen aurretik abiatuko den lerroarekin bat egingen dute. Udalbiltzaren ustez, larunbateko manifestazioko aldarrikapenak «ez dira Ipar Euskal Herriko hiru probintzietara mugatzen». «Nazioa osatzen dugun herritar guztion indarrak batzea ezinbestekoa da», Udalbiltzaren ustez.

EAJK ere manifestazioan «masiboki» parte hartzeko deia zabaldu zuen atzo. «Oraingo instituzioen ezintasuna ikusirik, Euskal Herriko biztanleen gain da beren bozaren entzunaraztea, modu demokratikoan eta baketsuan».

ERAGILEEN IRITZIAK

MIXEL ETXEBERRI (Seaskako lehendakaria)

«Ez da aski euskara irakastea: erabili behar da»



«Ez da aski euskara ikastea eta irakastea. Hizkuntza erabili behar da. Oroitarazi nahi nuke, Artzek zioen bezala, hizkuntza bat ez dela galtzen ez delako ikasten, baizik eta ez delako erabiltzen. Euskarak behar du egiazko ezagupen bat. Hemengo hizkuntza da, eta ezin dugu gehiago onartu legez kanpo izan dadin. Bizi publikoan bere lekua behar du. Euskaraz bizitzeko baimen osoa dugu».

PANTXOA CARRERE (Kantaria)

«Biziki interesgarria da lau eskakizunak batera eramatea»



«Dudarik gabe, manifestazioan parte hartuko dut. Eskaera horiek diren ttipienak izanagatik, biziki interesgarria da Batera plataforma, lau eskakizunak batera eramaten baititu. Normal da Ipar Euskal Herriko jendeak bere gain hartu nahi izatea bere garapen ekonomikoa eta kulturala, Parisen esku emanik ibili gabe. Parisen izan ziren hautetsien portaera biziki txarra izan zen eta kopuru handian behar dugu salatu».

J.-MICHEL GALANT (Kontseilari nagusia)

«Raffarinnek hona etorri behar du gure nahia zer den jakiteko»



«Ikusiz nola pasatu zen Parisko itzulia, ez dakigu xuxen Euskal Herriko ordezkari ofizialek zer defendatu zuten. Dakigun gauza bakarra, ezezko erantzuna izan zela. Ez dut uste han izan ziren ordezkariak behar bezala ordezkatu gintuzten. Jean-Pierre Raffarinnek berak etorri behar du hona, bere belarriz eta begiz entzun eta ikus dezan hemengo gehienek nahiak zer diren».

JEAN FAGOAGA (Eusko Ikaskuntza)

«Euskaldunek ez dute amore emanen, eta ez gara unatuko»



«Gehiengok lau aldarrikapen horien alde da eta baita euskal preso hurbilketaren alde, salbu hautetsi handi horiek. Izugarri da. Ez nuke erranen Grenet eta horiek aurka direnik, baina ez dituzte gauza horiek guk bezala sentitzen. Guk, euskaldunok, tripa zolatik sentitzen ditugu. Ez dugu ulertzen nolaz gobernu batek ez dizkigun ematen. Dena den, euskaldunek ez dugu amore emanen. Ez gara unatuko».

J.-MICHEL LARRASKET (Unibertsitariora)

«Erabakiak hartzeko gai den zerbait behar dugu, garapenerako»



«Garaia da mobiliza gaitzen. Lau aldarrikapenak oso garrantzitsuak dira. Unibertsitateari dagokionez, gaur egun dugu egiturekin ez da garatzerik posible. Erabakiak hartzeko gai den zerbait behar dugu garatu nahi badugu. Argi da berezkoa izan behar duela, baina Garapen Kontseilua eta hola egituren barnean gogoetatu behar da nolakoa nahi dugun. Europa mailako interesean kokatzen dugu».

GORKA TORRE (Demoetako kidea)

«Botere publikoei desobeditu behar diegu»



«Anitz lagun bildu behar gara, botere publikoari erakusteko ez dugula amore emanen. Beraien jarrera antidemokratikoa salatzen segituko dugu. Abiapuntu bat izanen da, estatuei indar eta presio gehiagorekin aurre egiteko. Emeki-emeki, errespetatzen ez gaituzten botere publikoei desobeditu beharko diegu, euskararen aldeko neurriak exijitzeko eta instituzioak erakitzen hasteko».

JEAN-LOUIS GRACY (FDSEako arduraduna)

«Otsailaren 1ean denek indar egin behar dugu, euria izan ala ez»



«Ikusten dut departamendua aspaldian hitzeman zigutela eta orain denak gibelera ari direla. Laborari gisa, otsailaren 1ean indar egin behar dugu hain izateko. Baiona ez da hain urrun eta, euri ala aro ederra, denek parte hartu behar dugu. Hemen gauza asko bada egiteko eta, gainera, zaluago. Oraingo desmarxak luze dira. Beti behar da Pauarekin finkatu eta Biarnorekin desberdintasun anitz badugu».

DENIS BRILLANT (Lantegiak)

«Enpresaburuok botere guneak hurbil behar ditugu»



«Ofiziale gisa, ofizialdegia ere nahi dugu. Horrez gain, enpresaburuok botere guneak hurbil behar ditugu, departamenduaren bitartez. Kontseilu nagusia Baionan izateak harremanak asko erraztuko lituzke administrazioarekin eta hemengo berezitasunak kontuan hartuko lituzke. Dena den, dezentralizazio arazo orokor bat da; koherentzia politiko, sozial eta ekonomikoa beharrezkoak dira».